

ARETXABALETAKO BASOTXO JUBILATU ETXEAREN TABERNA-ARETOA USTIATZEKO KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAZ ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA EKONOMIKOAK, ADMINISTRATIBOAK ETA TEKNIKOAK

I. Kontratuaren helburua.

Aretxabaletako Udalak, Basotxo jubilatuen etxearen jabeak, bertako taberna ustiatzeko lizitaziorako deialdia egin du.

Taberna zerbitzua ustiatzeaz gain, tabernaren zerbitzurako diren instalazioak eta gauzak garbitu behar dira. Horretaz gain, jubilatutako etxearen ondoan, eraikinaren beheko solairuan dauden komunak garbituko dira.

II. Prozedura eta esleipen era.

Kontratua prozedura irekian esleituko da, eta baldintza agirian jarritako eskaintzak baloratzeko irizpidearen arabera jasotako eskaintza onenari emango zaio esleipena.

Proposamenak aurkezteak berak dakarkio eskaintza egiten duenari baldintza guztiak inolako kondiziorik gabe onartzea, eta baita aurkeztutako datu guztiak benetakoak direla adierazteko ardurapeko aitortpena egitea, eta zerbitzua kontratatzeke eskatzen diren baldintza bakoitza eta guztiak betetzeko kondizioak betetzen dituela ere.

III. Kontratuaren izaera juridikoa.

Sektore Publikoko kontratuen Legearen Testu Bateginaren 8. artikuluan esaten den bezala, - Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako errege-dekretua- kontratuak duen kalifikazioa zerbitzu publikoen kudeaketaren administrazio kontratuarena da.

IV. Epea.

Kontratuak 2 urteko iraupena izango du formalizatzen den egunetik kontatzen hasita eta urtero luzatu ahal izango da, beti ere, alde biek idatzia eta berariaz adierazten badute.

Adierazpen hori gutxienez kontratuaren amaiera eguna, edo lehen luzapenaren amaiera eguna baino hiru hilabete lehenago egin behar da. Guztira, kontratua gehienez ere 6 urtera arte luzatu ahal izango da kontratualdia eta luzapenak kontuan hartuta,

Kontratuaren epea, edo dagokion luzapenarena, amaitzeko ordua iritsitakoan, -edo kontratua aurrez suntsiarazi bada kontratua bete ez delako edo alde biak ados jarri direlako-, Udaltzarrak egoki iritzi gero, eta zerbitzua ematen jarraitu ahal izatea bermatzeko, esleipendunak konpromisoa hartzen du zerbitzua ematen jarraitzeko berriz ere zerbitzua esleitu arte horretarako aukeratutako prozeduraz, edo gehienez ere 3 hilabetez, kontratua erabakiko duen udal akordioaren egunetik hasita. Epe horretan, indarrean zeuden kontratu baldintza berak ezarriko dira.

V. Martxan jartzeko epea.

Zerbitzua martxan jartzeko gehienezko epea hamabost egunekoa izango da kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

VI. Instalazio publikoak esleipendunari ematea.- Lehengoratzea.

Esleipena jakinarazten zaion egunetik hasita hurrengo 15 egunen barruan, eta esleipendunak behin betiko bermea ordaindu eta XXII. baldintzan eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu kontratua sinatzerakoan zehaztutako zerbitzua emateko beharrezko instalazioak eta tresnak inolako zama eta karga barik eta erabilera baldintza egokietan.

Kontratuaren epea amaitutakoan, kontratua sinatzerakoan emandako instalazioak eta inbentarioan jasotako tresnak berez eta besterik gabe Udalarari itzuliko zaizkio zamarik gabe eta emandako baldintza berberetan.

Gutxienez kontratuaren epea edo azkenengo luzapena amaitu baino 2 hilabete lehenago, Udalak teknikariak izendatuko ditu instalazioak eta tresnak zein egoeretan dauden ikuskatzeko, eta ikuskapen teknikoaren emaitzaren arabera, horiek erabilera baldintza egokian gordetzeko beharrezkotzat jotzen diren konponketa eta ordezkioak jartzeko lanak egitea aginduko du. Lanok esleipendunaren kontura izango dira.

VII. Esleipendunak ordaindu beharreko prezioa.

Esleipendunak urtero, gutxienez, irabazien %70eko kanona ordainduko dio Udalarari. Horretarako, urte bukaera bakoitzean esleipendunak kontuen berri emango dio Udalarari eta Udalak egoki deritzon informazio eta dokumentuak eskatu ahal izango dizkio.

VIII. Esleipendunaren oinarritzko betebeharrak.

Kontratista-esleipendunaren oinarritzko betebeharrak honako hauek izango dira:

- a) Kontratuaren helburu den zerbitzua ematea. Horretarako, zerbitzua martxan jarri beharko du HAMABOST EGUNEKO epean esleipena jakinarazten zaion egunetik kontaktzen hasita.
- b) Lana aipatutako jubilatuen etxean egitea, eta jubilatutako etxea jendearentzat zabalik eta dituen zerbitzu guztiak emateko moduan edukitzea goizeko 11:00etatik 13:30etara eta 15:00etatik 20:30etara.
- c) Tabernako lokalak, instalazioak eta tresnagutxienez egunero garbitzea.
- d) Esleipendunak berak zuzenean betetzea kontratu honetan berari ezarritako egiteko guztiak. Ez du izango inolako lan loturarik ez Udalarekin ez Jubilatuen Etxearekin, eta modu berean, ez dute inolako loturarik izango esleipendunak kontratatatu ditzakeen langileek. Esleipendunak langilerik kontratatutako balu, horiek Gizarte Segurantzako kide egitea bere kontura izango da.
- e) Gizarte Segurantzako autonomoen erregimen berezian alta ematea jarduerari dagokion Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, eta baita dagozkion autonomia edo udal zerga eta tasak ordaintzea ere.
- f) Esleipendunaren titularrari beste batek ordezkapena egiteko baimena eman ahal izango da, baina, bakarrik atsedean egunetan eta urteko oporraldian egin ahal izango da ordezkapena. Baimena eman ahal izateko aurrez eta behar besteko denboraz jakinarazi beharko zaio Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeari eta jubilatuen etxeko arduradunari. Ordezko pertsona kontratatzea eta Gizarte Segurantzako alta ematea esleipendunaren ardura izango da, eta ez du izango inolako lan loturarik Udalarekin.
- g) Kontsumisioen prezioak ez dira izango, inolaz ere, Udalak onartutakoak baino garestiagoak. Horretarako bi prezio zerrenda egingo dira, bata jubilatutako guztientzako eta bestea jubilatutako ez diren gainontzekoentzako. Prezio horiek, eta izan daitezkeen aldaketak, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak onartu beharko ditu.
- h) Tabernan jarriko diren kartel, ohar, prezio zerrenda eta antzekoak gutxienez euskeraz jarri beharko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez. Nahi izanez gero, euskarazko testuak idazteko edo zuzentzeko Udal Euskara Zerbitzura jo ahal izango da.
- i) Instalazioak zaindu eta funtzionamendu, garbitasun eta higiene egoera onean edukitzea kontratuaren indarra amaitzeagatik berari atxikitutako eta beharrezko instalazioekin batera Udalarari itzuli arte. Esleipendunak behartuta dago ustiaketan sor daitezkeen edozein arazo, eta orokorrean, erakina hondatzeko arriskua sor dezakeen edozein gorabehera udal zerbitzu teknikoaren jakinean idatziz jartzera. Horrek zerbitzua itzultzea ekar dezake, sortutako arazoaren arabera esleipendunaren erantzukizuna frogatzen bada.
- j) Kontratuak dirauen bitartean, hondatutako tabernako materialak eta tresnak konpondu eta ordezkioak jartzea, eta baita Taberna-aretoak instalazioak eta lokalak garbitzeko beharrezko garbigarri eta tresnen gastuak ordaintzea ere.
- k) Tabernako altzarien eta makinaren (mahaiak, aulkiak, gortinak...) mantentze-lanen eta konponketaren gastuak ordaintzea.

l) Kontratuak dirauen bitartean esleipendunak zerbitzu arduratsua eskaintzea, eta une oro horren gainean Udalak emandako arauak betetzea. Era berean, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun-elikagai izaerako arau eta xedapen guztiak betetzea.

m) Taberna barruan sortutako zarata mailak lokalaren ezaugarrien arabera legez jarritako mugak ez gainditzeko beharrezko neurriak hartzea. Horretarako, musika aparatoaren eta zarata ateratzen duen beste edozer gauzaren maila kontrolatu beharko du. Guztiz debekatuta dago musika aparatorik edo antzerakorik jartzea lokalaren kanpoaldean.

n) Esleipendunak ezingo dio zerbitzua erabiltzea ukatu arauzko betebeharrak guztiak betetzen duen edozein pertsonari.

o) Instalazioen erabiltzaileekin tratatu adeitsu eta errespetuzkoa izatea.

p) Esleipenduna zerbitzuaren funtzionamenduagatik sor daitezkeen kalteen erantzule izango da. Horretarako, honako hauek egin eta ordaindu beharko ditu:

A.- Taberna-aretoa ustiatetarekin zerikusia duten makina, tresna eta lanabesak babesten dituen arrisku orotako poliza.

B.-Hirugarrenentzako erantzun zibileko aseguru poliza. Kontratututako poliza ezingo da izan 150.000 € baino txikiagoa.

Esleipendunak beregain hartuko ditu primak ordaintzea eta Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko ditu bai kontratatutako polizen kopiak bai ordainagiriaren justifikanteak.

q) Ez besterentzea eta ez kargatzea Udalari itzuli beharreko instalaziorik edo ondasunik.

r) Ustiaketa berak egitea eta ez lagatzea osorik edo partzialki, eta ezta eskualdatzea hirugarrenen bati aurrez Udalaren berriazko eta idatzizko baimenik gabe.

s) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman, eta dagozkion autonomia, probintzia edo udaleko zergak ordaintzea. Era berean, Gizarte Segurantzako eta laneko Segurtasun eta Higiene betebeharrak egunean izan beharko ditu bai esleipendunari dagokionez bai berarentzat lanean dihardutenei dagokionez.

t) Instalazioak beste jarduera batzuetarako ez erabiltzea. Baimena beharko du edozein edari edo goxoki makina jartzeko eta baita txanpon-makinak jartzeko ere.

u) Ezingo du inolako motako komertzio edo politikari buruzko kartelik, makinari edo publizitate iragarkirik jarri, eta ezta obrarik egin ere Udalak berriaz horrela baimendu barik. Drogamendekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen arabera, guztiz debekaturik dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholikorik eta tabakorik zerbitzatzea eta txanpon-makina edo joku-makinak erabiltzen uztea.

v) Abenduaren 30eko 42/2010 Legearen arabera, guztiz debekatuta dago establezimendu barruan erretzea.

w) Aretxabaletako Udalak tabernaren aretoa nahi duenean erabili ahal izango du zenbait ekitaldietarako (hitzaldiak emateko, lehiaketarako, sari-banaketa, kultura arloko ekitaldiak etab), baina horien berri aldeztetik esleipendunari jakinaraziko dio.

IX. Esleipendunaren eskubideak.

Esleipendunaren eskubideak honako hauek dira :

a) Zerbitzurako beharrezkoak diren udal instalazioak eta ondasunak erabiltzea,

b) Erabiltzaileei emandako zerbitzuagatik jaso beharreko ordainsariak jasotzea.

X.- Udalaren eskubideak eta eginbeharrak.

a- Udalaren eskumena da kontratua interpretatzea eta kontratua betetzearen gainean sortutako zalantzak erabakitzea.

b- Udalak beretzat gordetzen du emakida amaitu baino lehen emakida berreskuratzeko eskubidea, -dagozkion legezko ondorioekin-, interes publikoko beharrak horrela justifikatzen baldin badute.

c- Era berean, zerbitzua modu egokian eskaintzen dela ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak beregain hartu, eta edozein unetan erabili ahal izango ditu. Halaber, beharrezko ikusten duen aldi oro ikuskatuko du lokalak behar bezain garbi dauden. Instalazioen ikuskapen zehatza egingo du urtero, eta horien egoeraren akta jasoko da. Egindako ikuskapenen ondoren, eta

- beharrezko balitz, higiene eta zaintze egoera egokia bermatzeko garbiketa, konponketa edo beharrezko mantentze-lanak egiteko behar diren aginduak emango ditu.
- d- Udalak ez du erantzukizunik izango esleipendunak bere hornitzaileei ez ordaintzeagatik ez eta instalazioetan izan daitezkeen lapurketa eta kalteengatik ere.
 - e- Lokalaren iturgintza, pintura eta argindar mantentze-gastuak Udalaren kontura izango dira. Halaber, Udalaren kontura izango dira eraikinaren esturkturarekin zerikusia duten konponketak ere.
 - f- Konponketarik ez duten altzariak, makinak eta abar ordezkatzera udalaren kontura izango da, beti ere, dolo, erru, zabarkeria, edo erabilera okerragatik eragindako kaltea ez bada izan.
 - g- Udalaren kontura izango dira argindarra, kalefazioa, ura eta zaborraren gastuen %50a.

XI. Prezioak eta ordutegia.

Esleipendunak jendearengatik jaso beharreko tarifak, (tarifako elementuak banatuta, urtero eguneratu beharko balira urteko KPlaren arabera), ezingo dira izan esleipendunak bere proposamenean jarritakoak baino handiagoak, eta inolaz ere ez Udalak baimendutako gehienezko tarifak baino handiagoak.

Funtzionamendu ordutegia esleipendunak proposamenean eskainitakoa izango da, eta tabernari dagokionez, lokal eta establezimendu publikoak zabaldu eta ixteko indarrean dagoen legediari egokitu beharko zaio

Basotxoko zerbitzua goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:30etara eskaini beharko da, lehenago esandako ordutegi barruan.

Atsedeen eguna eta oporraldia Udalak jarriko ditu esleipendunari entzun ondoren

XII. Kontratzeko gaitasuna.

Kontratzeko gaitasuna izango dute jarduteko gaitasun osoa izan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 60. artikulua kontratzeko debekugarri bezala jasotzen dituen gorabeherak eragiten ez dien espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoak.

XIII. Behin-behineko bermea.

Ez da eskatzen.

XIV. Behin betiko bermea.

Kontratua esleitzen zaion lizitatuzaileak kontratazio organoaren esku jarri beharko du 600 euroko behin betiko bermea. Berme hori Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 96. artikuluan onartutako edozein bide erabiliz jarri ahal izango da.

Kontratuaren esleipendunak jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita 10 eguneko epea izango du bermea jarri duela egiaztatzeko. Betebehar hori ez badu betetzen berari lepora dakioken arrazoiengatik, Administrazioak indargabetzat joko du egin zaion esleipena.

XV. Proposamenak aurkeztea: aurkezteko lekua eta epea, betebeharrak eta agiriak.

Proposamenak Aretxabaletako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eskura, 08:00etatik 13:00etara, 15 eguneko epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzen den biharamunetik kontatzen hasita. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo egun baliogabea balitz, epea hurrengo egunera arte luzatuko da.

Proposamenak korreoaz, telekopiaz edo elektronikaz, informatika edo telematika bidez aurkez daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko Legearen 38.4 artikulua ezarritako edozein lekutan.

Eskaintzak postaz bidaliz gero, posta bulegoan bidalketa ze egunetan egin den justifikatu beharko da, eta kontratazio organoari eskaintza bidali dela jakinarazi beharko zaio egun horretan telex, telekopiaz edo telegramaz, bertan adierazi beharko delarik espediente zenbakia, kontratuaren helburuaren titulu osoa eta lizitatzaillearen izena.

Aipatutako telexa, telekopia edo telegrama jaso izanaren ziurtagiria, horietan bertan udal idazkariak egindako diligenza bidez egingo da. Bi betebeharrak horiek barik ez da eskaintzarik onartuko kontratazio mahaia lizitazio iragarkian ezarritako epea amaitu ondoren jasotzen baldin baditu. Dena den, aipatutako epea amaitu ondorengo hamar egunetan ez badira agiriak jasotzen, agiriok ez dira onartuko.

Erabiltzen diren bide elektronikoek, informatikoek eta telematikoek Sektore Publikoko Kontratuaren Testu Bateginaren hamaseigarren xedapen gehiagarrian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak gutunazal itxietan aurkeztu beharko dira. A Gutunazalean lizitatzaillearen sinadura, jakinarazpenak egiteko helbidea, eta sobrearen izena eta honako testu hau jarri beharko da: ARETXABALETAKO BASOTXO JUBILATUEN ETXKO TABERNAREN ustiaketa prozedura irekiaz ustiatzeko lizitazioan parte hartzeko eskaintza.

Gutunazalean sartu beharreko agiriak originalak edo kopia eskuetsiak izan beharko dira indarrean dagoen legearen arabera.

Lizitatzaille bakoitzak soilik proposamen bat aurkeztu ahal izango du. Era berean, ezingo da izan proposamena egiten duen aldi baterako elkarteko kide batekoa, berak bere kontura proposamenik egin badu edo aldi baterako elkarre bat baino gehiagotan aurkezten bada.

Gutunazal barruan ondorengo agiriak sartu beharko dira:

1. Enpresaburuaren pertsonalitatea eta, hala badagokio, proposamen egilearen ordezkariak egiaztatuko duen agiria edo agiriak; hain zuzen ere, honako hauek:

1.1. Pertsona fisikoak edo enpresaburu bakarrak direnean, lizitatzaillearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia administrazio publikoaren ordezkariak duen norbaitek konpultsatuta, eta enpresaburu pertsona juridikoa denean Merkataritza Sozietatea eratzeko eskritura Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatuta.

1.2. Udaletxeko idazkari-abokatuak, zerbitzu juridikoek edo lurraldeko profesionalen elkargoaren eremuan diharduen abokatu batek askietsitako ahalmena beste baten ordezkotzan aurkeztutakoan.

1.3. Lizitazioan hainbat enpresek aldi baterako enpresa-elkartea osatuz gero, horietako bakoitzak egiaztatu beharko du bere pertsonalitatea eta gaitasuna, eta bertan jasoko dira proposamena egiten duten enpresaburuaren izenak eta egoerak, bakoitzaren parte hartzea, eta kontratua indarrean dagoen bitartean Administrazioaren aurrean elkarteari ordezkariak izango duen pertsonaren edo erakundearen izendapena. Era berean, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkartea legez osatzeko konpromisoa adierazi beharko da.

1.4. Ordezkatza egiaztatuko duten agiriak, hala badagokio: beste baten izenean agertu edo eskaintzak sinatzen dituztenek notarioak egindako ordezkotza ahalmenaren kopia Udaletxeko idazkariak askietsita. Lizitatzaillea pertsona juridikoa balitz ahalmen hori merkataritza-erregistroan agertu beharko da, legez horrela eskatu behar denean. Halaber, ordezkotza egiteko askietsitako ahalmena duen pertsonak, bere nortasun agiri nazionalaren fotokopia aurkeztu beharko du administrazioak konpultsatuta edo notarioaren lekukotzarekin.

1.5. Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako enpresa ez espainiarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Herri Administrazioetako Kontratuak Araudi Orokorreko I eranskinean aipatzen diren erregistroetako batean izena emanda egotearen ziurtagiria edo zinpeko aitorpena aurkeztuz.

Gainontzeko enpresaburu atzerritarrek dagokion estatuan Espainiak duen ordezkariak diplomatikoak egindako txosten bidez ziurtatu beharko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horretan azaldu beharko da tokiko erregistroan, erregistro profesionalean, merkatalean edo antzerakoan izena emanda daudela, edo horrelakorik ezean, kontratu honetako helburu diren ekintza arloan herrialde horretako tratuan ohikotasunez aritzen direla.

2. Lizitzailearen ardurapeko aitortzea. Bertan adierazi behar du ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazten diren kontratatzeko debekurik.

3. Jubilatuen tabernen kudeaketan gutxienez bost urteko eskarmentua.

Lizitzaileek baldintza-agirian ezarritako irizpideen arabera eskaintzak baloratzeko egoki deritzoten behar beste agiri aurkeztu ahal izango dituzte

Ez dira onartuko honako proposamen hauek:

- Kontraesan, omisio, akats edo ezabaketaren bat dutenak, eskaintza kontuan hartzeko Administrazioak funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten badute.
- Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozenak.

B gutunazla ARETXABALETAKO BASOTXO JUBILATUEN ETXEKO TABERNAREN USTIAKETARAKO IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK izena izango du eta XIX eta XX. Klausuletan aipatzen diren agiriak sartuko dira.

XVI. Kontratazio Mahaia.

Kontratazio Mahaia honako hauek eratu edo osatuko dute:

- Lehendakaria, Alkatea.
- Bokalak: Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileko kideak, Udaleko idazkaria eta kontuhartzailea.
- Idazkaria, Gizarte langile bat.

XVII. Agiri orokorren kalifikazioa, konpon daitezkeen akatsak.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta gutunazalaz zabaldu baino lehen, Kontratazio Mahaia epean eta moduan aurkeztutako gutunazalazko agiriak kalifikatuko ditu bilkura pribatuan.

Aurkeztutako agirietan akats materialik aurkituko balu mahaia, ahoz jakinaraziko die interesatuei eta gehienez ere 3 eguneko epea emango zaie lizitzaileei akatsa konpontzeko. Lizitzailearen batek aurkeztutako agiriak funtsezko akatsik edo konpon ezinezko akats materialik balute, ez dira lizitaziorako onartuko.

Aurreko paragrafoan aipatutako konponketez gain, Kontratazio Mahaia aurkeztutako ziurtagirien eta agiriaren gaineko beharrezkotzat jotzen dituen azalpenak edo beste agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango dizkie lizitzaileei beraien gaitasuna egiaztatzeko. Eskari hori gehienez ere 5 egun naturaleko epean bete behar izango da, eta beti ere proposamenak onartzeko adierazpena egin baino lehen.

Aurkeztutako agiriak aipatutako bilkura pribatuan, edo hala behar izanez gero, akatsen bat konpontzeko agiri osagarriak aurkeztu behar izan direlako Kontratazio Mahaia osatzeko egindako bilkura berria baloratuko dira.

Ondoren, lizitzaileek A gutunazalean aurkeztutako agiriaren kalifikazioaren emaitzak jakinaraziko dira ekitaldi publikoan. Bertan adieraziko dira baztertutako lizitzaileak eta bazterketaren arrazoiak. Bertaratuek oharrak egiteko aukera izango dute eta horiek aktan jasoko dira. Ondoren, ekitaldi publiko horretan B gutunazalazko "eskaintza tekniko" agiriak irekiko dira, beraien edukia azaldu, eta bertaratuek aukera izango dute gainontzeko B gutunazalazko agiriaren edukia aztertzeko.

Bertaratzen diren lizitzaileek aukera izango dute, egoki iritziz gero, egindako ekitaldiaren gaineko oharrak edo erreserbak egiteko. Ohar eta erreserbak idatziz egin behar dira gehienez ere ekitaldi publikoan egin ondorengo bi laneguneko epean, eta kontratazio organoari zuzenduko zaizkio, zeinak

kontratazio mahaiaren txostena jaso ondoren prozedura erabakiko duen kontratua esleitzerakoan aurkeztutako erreklamazioak berariaz erabakiz.

Ekitaldia amaitu ondoren, gertatutakoa fidelki bilduko duen akta jaso eta Kontratazio Mahaiko lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute eta baita erreklamazioak edo erreserbak egin dituztenak ere.

Kontratazio Mahaiak ongizate departamentuko teknikari bati eskatuko dio aurkezten diren eskaintzen balorazioa eta ondoren kontratazio organoari proposamena aurkeztuko dio. Esleipen proposamenak ez du proposatutako lizitatuzailearen aldeko inolako eskubiderik sortzen Administrazioarekiko. Hala ere, kontratazio organoaren esleipena ez datorrenean bat egindako proposamenarekin, erabaki hori arrazoitu beharko du.

XVIII. Lizitazioa esleitzeko oinarrizko irizpideak.-

Lizitazioa esleitzeko oinarrizko irizpideak, honako hauek dira:

1.- Kudeatutako zerbitzuaren bideragarritasuna eta kalitatea: Gehienez 4 puntu. Baloratuko dira erabiltzaileei eskainitako zerbitzu osagarriak (bi puntu) eta gutxienezko zerbitzuak emateko hobekuntzak (bi puntu).

2.- Esleipendunak udalari ordaindu beharreko kanona hobetzea:

- %80 arteko kanona: 2 puntu.
- %90 arteko kanona: 2 puntu.
- %100 arteko kanona: 4 puntu.

Puntu hauek guztiak batugarriak dira.

3.- Euskaraz hitz egiten jakitea baloratuko da. Udalak egin ahal izango duen probaren bidez frogatuko da: puntu bat.

4.- Hobekuntza proposamenak: puntu bat.

XIX. Kontratazio-mahaiak proposatutako esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentu osagarriak.

Esleipena egin aurretik, eta 15 eguneko epean jakinarazpen pertsonala egindako egunetik kontatzen hasita, proposatutako esleipendunak honako agiri hauek – originalak edo konpultsatutako fotokopiak- aurkeztu beharko ditu:

- Identifikazio Fiskaleko Kodea.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea zerbitzua eman beharreko ekitaldian eta egoitza fiskalean edo lekuan. Horrekin batera eta horren osagarri, aipatutako zergako matrikulan baja ez eman izanaren ardurapeko aitortpena. Zerga hori ordaintzetik salbuesita egonez gero, aipatutako zergako matrikulan baja ez eman izanaren ardurapeko aitortpena aurkeztu beharko du eta salbuespen kasua adierazi.
- Gizarte Segurantza eta zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Egiaztapena Herri Administrazioetako Kontratueta Araudi Orokorra garatzen duen martxoaren 1eko 390/96 Errege Dekretuko 7, 8, 9, 12, 13 eta 15 artikuluetan (martxoaren 21eko 70 zenbakidun EAO) ezarritakoaren arabera egingo da.

XX. Esleipena.

Kontratazio organoa Udaltzatzaia izango da. Proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita, gehienez bi hilabeteko epean egin beharko da esleipena.

Kontratazio organoak ezingo du esleitu gabe utzi lizitazio bat baldintza agirian jasotako irizpideen arabera eskaintza edo proposamen onargarriren bat egon eta proposatutako esleipendunak aurreko baldintzen ezarritako betebeharrak bete baldin baditu. Hala ere, Sektore Publiko Kontratuen Testu Bateginaren 155. artikuluan jasotakoaren arabera, Administrazioak, esleipena eman baino lehen,

kontratua egiteari uko egin diezaiokie interes publikoko arrazoiengatik, edo izapidetutako prozedura bertan behera utzi honek konpon ezinezko akatsak dituenean. Kasu bietan, lizitazioan parte hartzeak lizitatzailerari sortutako gastuak ordaindu beharko dizkie.

Kontratazio mahaiak proposatutako lizitatzailerari ez bazaio kontratua esleitzen horretarako baldintzak betetzen ez dituelako, deialdi berri bat egin aurretik Administrazioak sailkapena jarraituz zerrendaren ondorengo lizitatzailerari edo lizitatzailerari esleitu ahal izango dio kontratua, beti ere, hori egiteko biderik balego eta esleipendun berriak bere adostasuna adierazten badu.

Esleipena lizitatzailerari jakinaraziko zaie eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

XXI. Kontratua formalizatzea.

Esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamar laneguneko epean sinatu beharko du esleipendunak kontratua formalizatzeko dokumentu administratiboa. Dokumentu horri atxikituko zaizkio eta kontratuaren zati izango dira esleipendunaren eskaintza eta baldintza ekonomiko-administratiboen agiria bere eranskinekin behar bezala konpultsatuta.

Kontratua formalizatu aurretik esleipendunak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Behin betiko bermea jarri izanaren ziurtagiria.
- Baldintza agiri honetan betebehar bezala eskatzen diren aseguru polizak egin eta ordaindu dituela egiaztatzen duten agiriak.

Kontratua formalizatuko den dokumentua administratiboa izango da edozein kasutan, eta nahikoa titulu izango da edozein erregistrora jo ahal izateko.

Esleipendunari dagozkion arrazoiengatik ezingo balitz kontratua aipatutako epe barruan formalizatu, Administrazioak kontratua erabaki ahal izango du Herri Administrazioetako Kontratu etako Araudi Orokorreko 109. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Kasu horretan, bermeaz jabetuko da, eta sortutako kalte-galerak lizitatzailerak ordaindu beharko ditu.

XXII. Esleipendunaren kontura diren gastuak.

Esleipendunaren kontura izango dira honako gastu hauek:

- a) Lizitazioak sortutako iragarkiak eta kontratua prestatu eta formalizatzearenak.
- b) Kontratuak sortutako estatuko, udaleko eta lurraldeko zergenak.
- c) Erantzukizun zibileko eta arrisku orotako aseguru polizenak, esleipendunak derrigorrez ordaindu beharrekoak baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera.
- d) Esleipen kontratua publikoki formalizatzearenak.

XXIII. Arau-haustek eta zigorrak.

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

1.- Arau-hauste arinak honakoak izango dira:

- Esleipendunak lokalaren funtzionamenduan zabaltzeko eta ixteko ordutegian izandako atzerapenak, eta instalazioak egoera egokian ez zaintzea.
- Ez onartzea bere borondatez eta arrazoi zuzenik barik udal zerbitzu teknikoaren ikuskaritza.
- Erabiltzailerari tratu okerra edo ez egokia ematea.

- Zerbitzua ematen duten pertsonak zikin edo modu ez egokian jantzita egotea.
- Ezarritako betebeharrak ez betetzea, horiek arau-hauste larri edo oso larritzat ez badira jotzen.

2.- Arau-hauste larriak honakoak izango dira :

- Ezarritako aseguru polizak ez ordaintzea.
- Erabiltzaileentzako prezioak aldatzea udal baimenik gabe.
- Administrazioaren aginduak ez betetzea.
- Zerbitzuak dakarren tasak eta zergak ez ordaintzea.
- Laneko, Gizarte Segurantzako, eta laneko Segurtasun eta Higiene arloko xedapenak ez betetzea.
- Emakidadunak arau-hauste arinak dakartzaten ekintzak behin eta berriz errepikatzea.
- Eraikinen edo instalazioen hondatzea edo balio-galtzea dakartzaten emakidadunaren jokabideak.
- Emakidadunak zerbitzu publikoko instalazioen edo eraikinen ez ohiko erabilera, kanpoko eta barruko zaratak barne.
- Emakidaren helburu ez den jardura bat egitea zerbitzuan.

Zigorra edozein delarik ere, instalazioetan kalteak egonez gero, eta ez badira izan ezusteko edo ezinbesteko kasuengatik, Administrazioak horiek konpontzera derrigortu dezake.

3.- Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira.

- Esleipendunaren oinarritzko betebeharren arau-hauste oso larria.
- Arau-hauste larriak behin eta berriz errepikatzea.
- Esleipendunak baldintza agiri honetan ezarritako baldintzetan ez jardutea.

4.- Zigorrak:

- Arau-hauste arina egiteak 300 euro arteko isuna ekarriko du. Isuna jarri aurretik espedientea ireki eta bideratuko du Alkateak, eta esleipendunari entzuteko aukera ere izango da.
- Arau-hauste larria egiteak, espediente bide bera jarraituz, 600 euro arteko isuna ekarriko du.
- Arau-hauste oso larria egiteak, baldintza beretan espedienteari dagokionez, 900 euro arteko isuna ekarriko du.
- Hiru hilabeteko epean bi arau-hauste larri egiteak kontratua baliogabetzea ekar dezake.

5.- Isuna jartzea, aurrez entzunaldi eta guztiko espediente administratiboa irekita, administrazio publikoetako zigor araudia errespetatuz egingo da.

Edozein kasutan, bi arau-hauste larri edo bat oso larria egiteak kontratua suntsiaraztea ekarriko du, aurrez horretarako espedientea egin ondoren.

XXIV. Kontratua aldatzea, etetea, amaitze edo suntsiaraztea.

Honako hauetan ezarritakoaren menpe dago: Sektore Publikoko kontratuen Lege Bateginaren 219tik 225 arteko artikulua, 264. artikulua, eta 285etik 288rarteko artikulua.

XXV. Araubide juridikoa.

Egin beharreko kontratazioaren kalifikazioa kontratu administratibo berezia izango da, eta baldintza agirian edo elementu administratiboetan berariaz aurreikusten ez denerako honako hauek izango dira ezargarri eta osagarri: apirilaren 2ko 7/85 Legea, apirilaren 18ko 781/87 legegintzako errege-dekretua, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea), eta 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioetako Kontratuetakoa Araudi Orokorra, ordezkaten duten erregelamenduzko arauak indarrean dirauten bitartean.

XXVI. Jurisdikzio eskuduna.

Kontratua interpretatu, aldatu edo suntsiarazteagatik edo horien ondorioengatik sor daitezkeen auzigaiak kontratazio organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek administrazio bidea agortuko dute eta berehala betearaztekoak izango dira, eta hala nahi izanez gero, aukera dago birjartze errekurtsua jartzeko erabaki hartu zuen organoari edo administrazioarekiko auzien jurisdikzian aurka egiteko.

XXVII. Proposamen eredia.

Eskatzailearen datuak edo enpresaren ordezkariarenak:

Izena:
Helbidea:
Herria:
NAN:

Enpresa ordezkatzuz gero, enpresaren datuak:

Enpresaren izena:
Helbidea:
Herrira:
Posta kodea:
Telefonia:
Faxa:
IFK:

BERE ARDURAPEAN HONAKOA AITORTZEN DU:

I.- Basotxo Jubilatu Etxeko Taberna-aretoa ustiatzeko kontratazioa egitea helburu duen kontratua esleitzeko lizitazio iragarkiaren berri baduela.

II.- Baldintza ekonomiko-administratiboen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainontzeko agiriak ere ezagutu eta osorik onartu eta bere egiten dituela.

III.- Lizitatuak edo ordezkatzeko enpresak indarrean dagoen araudiak zerbitzua irekitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Lizitazioan parte hartzeko interesa dudala, eta baldintza agirian jarritako baldintzen arabera ustiaketa egiteko konpromisoa hartzen dudala, horietatik eta indarrean egon eta zuzenean edo subsidiarioki aplikagarri izan daitezkeen arauetatik sor daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak onartuz

IV.- Ez nagoela Administrazioarekin kontratatzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean.

V.- Baldintza agirian ezarritako irizpideen arabera eskaintza baloratzeko balio duten meritoak ziurtatzeko agiriak aurkezten ditudala.

Aretxabaletan, 2012ko martxoaren 26an.